

## ETBren erakaspena

### Txillardegi

Alferrik da ukatzea edo ahaztea: urte hauetako arrakasten artean jarri beharra dago euskal telebista katea.

Hots, alde batera eta bestera pittin bat besterik ez da begiratu behar, ETB-ren «mirariaz» jabetzeko. Batzuen axolakabeberria eta besteen gorrotoa nabarmen daudenean, nola liteke gure hizkuntzak garaitzapen hori lortzea?

ETB-ren historia, ordea, ez da aspaldiko kontua; eta batzuk behintzat ongi dakigu nolako borroka izan zen; eta telebista «bilingue» delakoa eraikitzekeo proiektuak ez zirela eskas: «un servicio pagado con el dinero público no puede estar al servicio de una minoría», eta abar. Gogoratzen zarete?

Ekin egin genion geure nahiari, ordea: *kate bat* euskara hutsez, *gutxienez*. Eta lortu egin genuen. Nahiz aldamenen bospasei kate erdara hutsez ari badira ere, eguneroko, jo-ta-ke; eta irratiaz eta prentsez gertatzen dena gogoratu beharrik ez dagoelarik.

ETB-ri esker, *gure mendekoa den tresnaren bidez* zabaltzen da gaur euskara; eta, ia-ia hori bezain inportantea: euskara *sekula entzuteko aukerarik ez dutenek* (eta asko dago honelakorik gaurko Euskal Herrian, sinesten lanak baditugu ere) topo egiten dute; eta gu, euskaldunok, hor nonbait, bagaudena somatzen dute. Eta, agian, «ulertzen ez gaituztelako, ulertzen hasten».

Arriksua ez da pasa, ordea. Egun haue-tantxe entzun dugu berriro, beste kateetan euskara apur bat sartuz gero, ETB-an erdara gehixeago sar litekeela... Hasiak dira betikoak. Eta erne egon behar dugu. Gure herria euskalduntzeko borondaterik instituzio nagusietan ez dagoenez gero (eta borondate hori *ez dago*, ez da egia), ETB arriskutan dago, eta egongo ere da oraingoz bederen. «A río revuelto» ... badakigu. Euskara *beharrezkoa* ez den gizamultzo *guztietan, euskaldun hutsik ez dagoelako, euskara kitto*. Eta ETB-an ere bai, jakina.

Are gehiago: euskaldun elebidunok euskaldun *elebakarren* jokabidea geure egiten ez duguno, euskararen egin du. Hau, berriro ere, estatistika arazoa da; eta matematikoa, beraz. Presio bakarria gaur, erdal-dun elebakarra da. Simetria apur bat lortzeko (ez dezagun esan erabilpenak orekatzeko edo berdintzeko!), guztiz beharrezkoa da gizamultzo eta hedabide *euskaldun elebakarrak* zabaltzea. ETB da bat; eta eutsi egin behar zaio. *Baina ETB ez da bakarria*.

*Maila honetan, eta bestetan ere, nahaste + elebidunak – proposatzen dituztenak, edo*



Txillardegizuntzalaría, idazlea eta EHEko partaidea.

txotxolo galantzak dira; edo hizkuntzen erabilpena nola mamitzen den ez dute sekula aztertu.

Bidea, hitz batez, ETB-rena da: euskara hutsez eustea; euskara hutsezko *ekintzak*, *eskolak*, *prentsa* eta *fakultateak* ugaltzea; eta, hau batez ere, oraindik ere gauza «mixto» mitologikoak bultzatzen dituztenak, oso hurbildik zaintzea. Beroiek, nahi-ta-ez, oso bertan baitituzte beren egiazko buruzagiak eta kapitainak...

Eta, esan beharrik ez: buruzagi eta kapitain horiek ez dira gureak.

## ETB: bi urtetako lanaren emaitzak

### Amatiño

Euskal Telebistak 1983 urteko lehen segunduan kaleratu zene-tik hona, hiru epe edo ekinaldi desberdin ezagutu izan ditu:


1.— Lehenengoa, 1983ko Urteberri egunetik urte bereko Abenduaren 19ra arte. Lehen epe honetan, ez izatetik izatera bitarteko abiadari ekin zitzaion. Telegunkari bat bakarria izan zen, «Gaur Egun», eta informazio alorreko hiru programa burutu ziren: «Kirolez Kirol» (as-telehenetan), «Plaza Berri» eta «Munduan Zehar».

2.— Bigarrena, 1983ko Abenduaren 19tik 1984eko Urrirarte. Bigarren epe honetan, bi telegunkari berri sortarazi ziren, «Teleberri» eta «Gabon», «Kirolez Kirol» igande gauera aurreratu zen eta baita astelehenen eta ostiralean zehar luzatu ere. Horrez gainera, «Gaztetandik», «Zopa Haundi», «Mahai Ingurua» eta «Berbetan» burutu ziren.

3.— Hirugarrena, 1984eko Urritik 1986ko Urtarrilera bitartekoa izango da. Epe honetan, «Hemen Bizi» informazio alorreko programa berria burutzeaz gainera, bestelako euskal produkzio landuagoak mamitu ahal izango dira Donostiako barne-produkzioko behi-behineko zentruan, Miramongoa 1986an noiz martxan jarriko zain. Hirugarren epe honetan, «Lirainduz», «Jolas Jokia», «Popa Zoro», «Don Don Kikilikon» eta «Klasikoan Txokoa» argitara eman beharko dira.

### Nazioarteko lehen urratsak

Ekintza zehatz eta izen-deiturako programa jakinekoen gainetik, 1984 urteak informazio alorreko azpiegitura sendotu



Amatiño ETBko zuzendaria da.

eta finkatu nahi izan du. Zazpi kazetarirekin hasi zen Euskal Telebistak 43 lankidez osatutako erredakzioaz amaituko du 1984 urtea. Eta Komunitate Autonomoan ezezik, Iruñan, Baionan, Madrilan, Parisen eta Bartzelonan ere izango ditu berri-emai-zein informazio iturri zuzenak. Tresneria teknikoari dagokionez, berriz, baliapideak bikoiztu egin dira, Durango ezezik, informazioa Gasteiz zein Donostiako

bulegoetan editatzerik bada, Donostia eta Durango arteko informazio-lotura murreraz egiten da dagoeneko eta Paris eta Bilbo artekoa, berriz, satelitez.

Horrez gainera, urtean zehar nazioarteko lehen urratsak joratu dira, hala nola Euskal Herritik Frantziara zuzenean emandako Kontxako estropadak, Bartzelonatik hona eskainitako futbol partidua, FR3-rekin batera elkarren artean egindako zortzi ordutako programa edota New Yorktik hona zuzenean emandako Medows-eko tenis txapelketaren amaia.

Nazioarteko harreman artean aipagarri ere ETB-k bestelako telebisten artean lortu duen harrera eta, eragina murrizta izan arren, ireki zaizkigun ateak. Lan isil esker-ga horren ondorioz begibistakoak dira, besteak beste, BBC-ren telesail preziatuak zein han-hemenka eskuratutako luzemetraien duintasuna.

Lortezin geratu diren ekintzen artean, 1984 urtea UERen sartu ezinik joan zaigu. Hala ere, zer gerta ere, denbora, teknologia eta Europan zehar pil-pil dagoen telebista alternatiboen mugimendua, teoriari behintzat, gure alde datorkigu.